

Hizkuntza Politikaren Plan Estrategikoa (2016-2019) Partaidetza Prozesua

Bilera-mota	Lurralde-bilera
Eguna	2016-10-25
Ordua	17:00-19:00
Lekua	Leitza, Udaleko aretoa

Bertaratutakoak	
Andone Salbarredi Azurmendi (Leitzako zinegotzia)	Kristina Urrutia Apezetxea (Nafarroako Iparraldeko Mankomunitateko euskara teknikaria)
Josune Marzol Ormazabal (Leitzako zinegotzia)	Oihane Calderon Callejas (Leitzako zinegotzia)
Mikel Illarregi Elberdin	Mentxu Peña (Arantzako zinegotzia)
Mikel Zabaleta Aramendia (Leitzako alkatea)	Julian Zabaleta Alduntza (zinegotzia)
Kontxi Zozia Agirre (Leitzako IKA arduraduna)	Zuriñe Lujanbio Zabala (Goizuetako Udaleko euskara zinegotzia)
Felix Altzelai Iriarte (Ultzama aldeko euskara teknikaria)	Eden Alguero Chivite (Aresoko Udala)

Euskarabidetik: Eduardo Aldasoro eta Javier Fernandez

Elhuyarretik: Idoia Aldekoa

Gai zerrenda
- Ongietorria - Elkar ezagutzea - Plan Estrategikoaren hasierako idatzaldia aurkeztea - Lanketa: talde-lana - Balorazioa eta agurra

Bileran egindakoa

Leitzako alkate den Mikel Zabaletak ongietorria egin du eta elkar ezagutzeko izen-erronda bat egin dugu. Eduardo Aldasorok, Euskarabideako teknikariak, Plan Estrategikoaren prozesuaren nondik norakoak eta Planaren markoa azaldu du eta ondoren, Elhuyarreko teknikaria den Idoia Aldekoari eman dio hitza, planaren helburuak aurkezteko. Aurkezpena egin bitartean, parte-hartzaileek lanketa-fitxa izan dute eskuartean oharrak jasotzeko. Lanketa-fitxak honakoa jasotzen zuen: *Erantsiko nuke.../ Zalantza eragiten dit.*

Aurkezpenaren ondoren, talde txikiak egin ditugu eta galdera hauen inguruan jardun dugu lanean:

- Zerbait erantsiko zenuke? Zerbait faltan bota duzue?
- Zerbaitek zalantza eragin dizue?



Ondoren, talde handian konpartitu dugu talde txikietan hausnartutakoa.

Saioa bukatzeko, balorazioa egin dugu eta hurrengo urratsak zein izango diren gogoratu ditugu.

Bileran jasotako iritziak eta ekarpenak

Erantsitakoak edo azpimarratzekoak diren alderdiak:

- Dauden komunikabideei sostengua ematea garrantzitsua da. Aipatu da dirua banatzeko irizpideak ondo zehaztu behar direla, eta beraiekin adostu behar direla.
- Zonifikazioa gainditzeko zehaztasun falta dago. Zonifikazioak kalte handiak egin dizkio Nafarroari eta faltan bota da hortaz modu irekian hitz egitea, horrek izan duen eragina esplizituki ez aipatzea.
- Zehaztasun falta 6.4.2 puntuan: "...euskararen erabilera ofiziala arautzea." Arautua badago orain ere, kontua da nola arautu. Justizia Administrazioan, osasugintzan... nola eragingo lukeen ere ez da aipatzen.
- D ereduak bultzada berezia behar du.
- 2.4.2. puntuan zehaztasun falta dago, helduen eta alfabetatzean baliabide falta dago eta ez da zehazten horri nola egingo zaion aurre. Aipatu da dirua banatzeko irizpideak ondo zehaztu behar direla, eta sektoreko eragileekin adostu behar dela.
- Euskara irakaslea izateko formazio berezia jasotzea, eta hizkuntzak irakasteko baliabideak behar dituzte irakasleek.
- Euskara ikasteko aukerak zabaltzearekin batera zerbitzuak publikatzea.
- Euskarazko kultur produkzioarako baliabide falta dago.
- Dauden administrazioetan euskarazko zerbitzuak ongi identifikatzea garrantzitsua da, euskarazko zirkuituak ondo identifikatzea eta herritarrari ezagutaraztea. Eta administrazioan euskarazko zirkuitua garatzeko minimoak bermatzea. Zeharlerrotasuna estrategikoa da.
- Administrazioa euskaratzeko ahalegin handia egiten ari gara (beharrezkoa eta positiboa da) baina kalean euskara galtzen ari da.
- Motibazioan lan handia dago egiteko, jendea euskaltegietara erakartzeko, euskara erabiltzeko... Adin-tarte ezberdinei zuzendutako ekintzetan ez dira aipatzen gurasoak, parkeetan biltzen diren guraso-taldeak eta horietan eragin beharra dago, sentsibilizazio-lana.
- Arnasguneak zaintzea: migrazioak nola eragiten duen aztertzea (datozenak erdaldunak, eta doazenak euskaldun peto-petoak, hirigintzak nola eragin dezakeen...), nola geldiarazi fenomeno/joera hau? Eta euskalkiei nola eutsi? Nola mimatu euskalkia?
- Etorkinak euskarara hurbildu eta euskara ikasteko bide berriak jorratu behar ditugu.
- Ekonomiak duen erlazio zuzena falta da. Familien eta Udalen ahalmen ekonomikoak gain karga bat darama.
- Planak Nola galderari erantzutea falta du; zeri erantzun behar dion landu da, baina nola galderari erantzuteko orduan, zehaztasuna falta da.
- Konponbide erraza duten gauzekin hasi behar da, emaitzak ikusten joan behar garelako pixkanaka.

Bileran jasotako iritziak eta ekarpenak

Zalantza eragiten duten alderdiak:

- Baliabide ekonomikoak; finantziarioak, helburu guztiak aurrera eramateko inbertsio handiak egin behar dira.
- Toki entitateekin lankidetzak-hitzarmenak: bada behar adina baliabide ekonomikoa?
- Euskararen Foru Legea: ez al da muga izanen?
- Hedabideak beharrezkoak dira baina diru-laguntza gutxiagorekin eta oztopoekin, nola?

Bileraren balorazioa

Bakoitzak hitz batez baloratu du saioa eta saioan landutakoa:

- Hurbiltasuna
- Zerbait berria
- Holakoak tarteka egin behar dira
- Aurrera eramaten bada pozik
- Parte hartzeko aukera eskertzen da
- Aberatsa
- Gobernutik etorrira eskertzen da herrietara etortzea
- Dena esanda dago
- Aukera ematea parte hartzeko, pena jende asko ez etortzea. Trinkoa izan da eta momentuan dena jasotzeko lan handia.
- Dokumentu elebidunek begiko mina, arnasguneetan euskara hutsez nahikoa.

Eta saioaren balorazioa orokorra egiteko, balorazio-orria bete dute. Hona emaitza:

BILERAREN BALORAZIO-ORRIA (lurralde-bilerak)

BALORAZIOA VALORACIÓN				
BILERAREN ORDUTEGIA ETA IRAUPENA EGOKIAK IZAN DIRA		1	5	5
GAIK LANTZEKO MODUA GUSTATU ZAIT			7	4
BILERAREKIKO ESPEKTATIBAK BETE DIRA		1	6	4
BILERA AURRETIK JASOTAKO INFORMAZIO NAHIKOA IZAN DA	1	3	5	2
GIROA ATSEGINA IZAN DA			2	9
PLAN ESTRATEGIKORAKO EKARPEN INTERESGARRIAK EGIN DIRA		1	4	6
GAUZA BERRIAK IKASI DITUT		2	6	3
BILERAN PARTE-HARTZEAK AURRERA BEGIRAKO URRATSETARAKO MOTIBATU EGIN NAU			8	3
HARREMAN ETA SARE BERRIAK ERAIKI DIRA		2	6	3
BILERAN PARTE HARTZEAK ASETU NAU		1	5	5

EGIN NAHI DITUZUN OHARRA

- Parte hartzeko aukera eskertzen da
- Arnasguneetan nahikoa litzateke bileran erabili behar den materiala euskara hutsean izatea
- Aberatsa
- Trinko xamarra geratu da, plana bera aurkeztea luze eta sakona delako.